

EBAZPENA, 2016ko Urriaren 10ekoa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legeari jarraikiz Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien ebaluazio egiteko Ebaluazio Batzordeen kideak izendatzea xedatzen duena.

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 8.3.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Agentziaren Zuzendariari dagokio Aholku Batzordearen kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Gobernu Kontseiluaren iritzia entzunda.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Unibasqen Aholku Batzordea entzunda, María José Aguilar Cordero Anderea Medikuntza eta Osasun Zientzien Batzordeko kide izendatzea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien ebaluaziorako.

Bigarrena.– Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko Urriaren 10ean.

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Eva Ferreira', written over a faint, light blue circular stamp or watermark.

EVA FERREIRA
Unibasq-eko Zuzendaria